

**LAGUNAREN PRESENTZIA ETA FIGURA
BEHAR DITUT NIK**

Filosofia materialean, berezkoa duguna (inplizituki bai behintzat, gero beste gauza da esplizitatzea), filosofia materialean erraz ulertzen da Ovidioren bertso hau:

Donec eris felix, multos numerabis amicos,
tempora si fuerint nubila, solus eris.

Eta hamaika komentario egin diezazkiokegu bertso horri. Ez bada ikusten, ez bada sentitzen hurrean, urrun dagoelako da, eta gure zoritxarra handia da bakardadean. Bakardadean ezin egin daiteke ezta psikoanalisi bat ere, bere adartze modernoekin. Eta Aristotelesek ere badio nola bakartia edo jainko bat da edo piztia. Eta beste batean pozik gabekoa ere badela dio. Erotzeko bidean dagoen bat, diot nik.

Eta, gaur egun, garai moderno garaikide hauetan, gerta daiteke bakarti bat katolikotasunera konbertitzea, eta mezatarra ere joatea, meza santura. Baita astegunetakora ere, nolako patologia duen, aldiak baititu asko joatearenak eta aldiak ere jota dagoelako ez joatearenak, soilik domeketan orduan. Eta bakarti horrek, nik neuk, jarraitzea meza santuan esaten den guztia entzun eta aditzen ahal den ondoen. Eta horrek asko erakusten dio, ikaragarri aberatsa baita meza santua entzuteko ohitura izatea eta aditzea ahal den gehien. Belarriak beti zaba-

lik esaten denari. Eta norbera astegunetako meza bat entzun eta gero, ordu laurden edo hoge minutukoa, onerako gogoz ateratzen da handik, ongiaren eta gaizkiaren zientzian aurreratu, ongiari buruz zuzendua.

Eta filosofo materialistak erraten ahal dio meza santutik ateratzen den bakartiari han entzun duena bere imaginazioa besterik ez dela, engainua; filosofia materialean erraten dena dela egiazkoa, hau da, meza ostean ere bakarrik dagoela, betiko moduan. Presentziaz poema makal asko idazten ahal direla, baina figurarekin, figura fisikoarekin, ez bada ikusten laguna, ez dago elkarri entzuterik, ez dago asaskatzerik, ez dago osabiderik. Eta jakina bakartia santua ere ez da, beraz, erotuko da lehenago edo geroago.

Nik mezatara joaten ikasi nuen elizan ere bazeudela neska ederrik, eta gaur egun katolikoa den emaztea dut. Eta bikote bakartia osatzen dugu. Eta nire solterotasuna (soltero solitario) aspaldiko oroitzapena da, baina segitzen dut nire bakarti sentimendua edukitzen (haren lanak banatzen gaitu ia egun osoan). Eta gaur pentsatu dut nola neure sasoiaren ez dudan ikasi filosofia materiala baizik, filosofia naturala, eta meza santuan esaten dena fantastikoa dela, sobrenaturala ere, baina guzti hori ez dudala ikusten neure bizitza pertsonalean.

Eta Marxek zioena etortzen zait gogora, hau da, basikoa da azpiegitura materiala, ekonomikoa batez ere, eta horren arabera eraikitzen da gainegitura, eta azkenik ageri da, batere indar gabea eta ezdeusa, espiritua, aldatzen dena azpiegitura aldatzen den neurrira. Izan ere Marx atea zen, materialista atea.

Eta nik sinesten dut meza santuaren berbak entzutean eta aditzean ahal dudan neurrian espirituz betetzen naizela, baina minuskulaz, beti nire bakardade errealaren, materialaren, naturalaren, zama dudala.

Falta dut Berbaren figura. Eta behin eta berriz jausten naiz falta hori sentitzera, eta nire katolikotasuna ironiaz ere bizitzera, erresumin handiak ere bizitzera (Nietscheren humanotasun miserablea). Eta onerako gogoaz ateratzen naiz mezatatik, hori egia da, baina nire espiritualtasuna minuskulaz idazten dut. Falta hori dudalako, eta haren presentzia eta figura ikasten dut zer esan nahi den ebanjelioetan, eta sinesten dut apostoluen testigantzetan, egiazkoak direla, baina ondorioztatzen dut, salmoan ez bezala, gaur ez dela Jauna etorri, ez due-la nigan eragin. Eta garai asko izaten dira holakoak, garbi dago. Eta horrek erakusten du askoren, gehiengoaren, ateokeria (nire estudioen arabera ez dago ateotasunik). Filosofia humanoa, naturala, materiala, izatea nagusi. Batez ere gaur egungo garai ilunetan, mirakuluerik ikusten ez dela, ezta, ondorioz, Jainko paregabearen aintzarik. Eta haxe garai iluna dela diot Jesusen berbak imitatuz.

Ni, hala ere, ez naiz filosofia materialaren kontrakoa, familia bat dut, eta semerik ez dugun arren ni naiz “pater familias” delakoa, eta arduratu behar naiz gure ekonomia sano mantentzen, eta hari horretara esaten diot nire emazteari:

- somos dos cristianos rodeados de chorizos.

Eta kultura orientalean gaudenez, ni ere txorizo izandakoa naiz, tentuz ibili behar gara gure etxeko ekonomia saneatzen. Lehen, tabernan esan diot lagun bati bankeroak ere batzuk usureroak direla, ekonomistek, masterrak egin behar lituzkete, gaur egun gainera denek zernahi esaten dutenez, masterrak egin beharko lituzkete usuraren gainean, eta berdin merkatariek.

Biblian usura gaitzeten da, baina ez merkatu librea, eta nik, joera birbanatzailearen aldekoa naizenez, hori badut, nire neurrian, praktikatu behar nire irabazi pobreekin.

Nire aldetik, eskatzea libre delako, mezenas bat ongi etorriko litzaidake. Artikuluren bat ere dedikatuko nioke.

Heidegger esistentzialistak ondo diagnostikatu zuen guzti hori, materialismoaren nagusitzea, filosofia materiala azkenik, izan gabe bera materialista, materialista bihurtzea, eta hitz egin zuen honelako terminoetan:

- izaeraren ahaztea, izatearen ahaztea, el olvido del ser.

Eta hori ere minuskulaz idazten dut, eta gogoratzen dut nola Biblian ere baden erraten “ahaztu zirela”, eta hori sarritan gertatzen da gainera historian barrena, historia naturalean sobrenaturalak diren fenomenoak igaro eta gero. Ahaztea ere naturala delako.

Hori erabiltzen ez den hizkuntza bezala da, erabiltzen ez denean ahazten joaten da. Erabat ere ahaztu arte, guztiz ahaztu arte.

Baina erabiliz gero, errepikapen morduakin, hizkuntza ez da ahazten, osatu ere egiten da erabiliaren erabiliaz.

Hala ere gertatu daiteke, hainbeste errepikapenen ondoren, hizkuntza horri buruzko interesa (gal ez dadin, adibidez) ez izatea handia, gu indiferente izatea ere ia ia berezkoa dugun hizkuntzari, adimena ere ikutua edukitzea. Azkenik galdu eta atzerrikoa ere dela afirmatzeraino (espainolismoa Nafarroan adibidez).

Nik israeldarrei aholkatuko nieke Salomonen esan bat, hau da, gehiago balio duela hurrean dagoen auzoak urruti dagoen lagunak baino.

Nik, euskal problema nazionalaz, badaezbadako nafar espainolisten pozerako, eta nire izeba karlista baten pozerako ere badut konposatua jota bat, honela dioena:

ikastola, ikastola han puesto en Tafalla, aaa, aaa
la madre, la madre que les pario, ooo, ooo.

Eta behin karlista zen nire koinatuaren aitarekin berba egin nuen bazkari batean geundela, eta nik esan nion nola behin euskara irakasle batek esan zidan euskara ahaztu egin zitzaio-
la ikastolan, hainbeste teorizazio partikular sartu dituztela. Eta harek erantzun zidan baietz:

- aiba, ez juat ulertzen.

Horixe pasatzen zela batuakin.

Ni ez naiz karlista, nazionalista naiz, eta euskara batuaren aldekoa, edukazio euskaldun baten aldekoa.

Biblia oso ondo dago euskaratua, batuan. Baina ni ere kritikoa naiz hor sartu diren teorizazio askorekin. Purismoa, adibidez, eta hori hartzea euskara garbitzat, euskara garbia delarik ondo konprenitzen dena, eta hor, gaur egun, gaztelania hegemonikoaren berba mordua hartzen ahal dira ulerpe-
naren faboretan. Euskara garbiaren faboretan.

Eta politikan sartuz amaitzen dut artikulutxo hau, “zoon politikon” filosofoak dioen moduan, animalia politikoak, gare-lako. Hori erran nion behin Bilduren inguruko bati, eta atzo, nire eguna zen gainera, honela erran nion:

- hi tontua haiz.

Erran zidan agresiboa etorria nintzela tabernara, baina erantzun nion berak handiagoak eta gaiztoagoak bota izan di-tuela nire kontra, irainzalea nintzela erran zidan despedidan, eta nik:

- ez haiz konturatzen?.

Baina egiazki eskandaluak direnak dira kristauen artean gertatuak, nazionalen eta nazionalisten artean gerra zibilean, eta geroago katoliko nacionalisten eta katoliko espainolisten artean, humiliatuak direla nazionalistak. Hor daude eskanda-luak, eta handiak niretzat.

Berba, azkenik, ez baita ondo aditzen haren aurpegia ikusi gabe. Besteak guretzat, eta gu besteentzat, mundua garelako. Arimaren etsaietako bat. “Munduak ulertzen duen moduan” eta holakoak ere entzuten dira meza santuan.

Egin behar dudana da, gaiztokerietan sartu gabe, nire gurutzea hartzea. Hori ere erraten da Meza Santuan. Eta barka biezat Espiritu Santuak hainbeste minuskulaz idatzi izanaz beraren izena. Job famatuak ere esan baitzituen esan beharrekoak ez direnak, gutxi batzuk, baina zerbait.

Artikulu hau dedikatzen diet gaixo eta bakartiei, urundu ez ditezen osatzen ez direlako. Pazientzia eduki behar da, eta iraupena, garai ilunetan bizi garelarik.

Epilogo.- San Paulo, san Frantses Xabier, horiek egiten zuten beren fedearen propaganda mirakuluez lagunduta, eta formatu ziren euren inguruan kristau taldeak, ni, ostera, ez nabil mirakuluez lagunduta eta arrastatua nabil nire mundualdian, inor ez da kristaua ni ikustean.

Roman Garmendia